

HIRIGINTZA JARDUKETETAN UDALARI DAGOKION HIRIGINTZA-APROBETXAMENDUAREN DIRU ZENBATEKOA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA BERRAZTERTZEA

XEDAPENAK

Lehenengoa.-

Indarrean dagoen hirigintzako legediak agindutakoaren arabera, lurzoru jabe direnek, Udalari dagokion aprobetxamenduaren portzentaia, nahitaez eta doan emateko lege betebeharra dirutan egingo den salbuespenezko kasuak arautzea da Ordenantza honen xedea.

Bigarrena.-

1.- Hirilurrean, jardute eremu sistematikoen bidez aritzen ez denean, edo bestelako kasuetan, baimendutako hirigintza-aprobetxamenduak urriak direnean, edo lurzoru-ondare publikoaren araudiak dituen helburuetarako egokiak ez direnean, lurzoru jabeek Udalari eskatu ahalko diote lurzorua emateko betebeharra dirutan emateagatik trukatzea.

2.- Lurrak ekibanatzeko proiektua beharrezkoa balitz, eskaera proiektua aurkeztu baino lehen edo honekin batera aurkeztu beharko da. Bestelako kasuetan, eskaera hori eraikitzeke lizentzia eskaerarekin batera edo lehenago egin beharko da. Edozein kasutan, eskaerarekin batera Udalari dagokion hirigintza aprobetxamenduaren tasazioa aurkeztu beharko da.

3.- Lurzorutan dagokion parte hartzea dirutan jaso eta diru honen zenbatekoa erabakitzeke eskumena, kasuz kasu, lurrak ekibanatzeko proiektuak behin betikoz onartzeko edo, eraikitzeke baimenak emateko eskumena duen udal organo berak edukiko du.

4.- Ez da eraikitzeke baimenarik emango Udalari dagokion hirigintza aprobetxamendua emateko betebeharra gauzatu ez den bitartean.

Hirugarrena.-

1. Zarauzko hirigintza planeamenduko egoitzarako edo industriarako alde edo sektore bakoitzaren hirigintza aprobetxamenduak, eraikigarria den lur-sailaren erabilera berezi edo nagusien arabera lortuko dira, kasuz kasu berariazko merkatu azterketa eginez.
2. Subsidiarioki eta aldez aurreko merkatu azterketa egon ezean, dagokion lurzorua hirigintza aprobetxamenduaren balorea, Gipuzkoako Foru Aldundiak Zarauzko udalerrirako egindako baloreen ponentzietan jasota dauden lurzorua baloreen bitartez lortuko da.
3. Aurreko paragrafoen arabera lorturiko zenbatekoei, indarrean dagoen hirigintza-legediaren arabera Udalari dagokion aprobetxamendu portzentaia aplikatuko zaie.
4. Lehengo irizpideen aplikazioaren ondorioz sortutako diru kopururak dena dela ere, zuzendu ahal izango dira babes publikoko araudiren bati lotutako etxebizitza sustapenetan edo gizartearen onerako beste erabilerak gauzatzen direnean; eta baita ere, planeamenduko berariazko betebeharretatik eratorritako ezohizko kasuetan, adibidez eraikitze lurzorua arkeologia esparrua izendatzeatik eratorritakoak, eta bestelakoak.

Laugarrena.

Ordenantza honek indargabetu eta ordezkatzeko du Udalbatza Osoak, 1996ko uztailaren 24an egindako bilkuran onartu eta 1996ko abuztuaren 6ko 150 zk. duen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Ordenantza, eta indarrean sartuko da, behin betiko onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratzen denetik hamabost lanegunera.

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Ordenantzaren berrazketa hau, hasierako izaeraz, 2002ko otsailaren 27an egindako osoko bilkuran onestu zuela Udalbatzarrak.

Zarautzen, 2002ko otsailaren 28an
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko, jendurrean egon zen bitartean inolako alegaziorik aurkeztu ez zenez, Ordenantzaren berrazketa hau behin-betiko onestua geratu zela eta Probintziako Aldizkari Ofizialean 2002ko maiatzaren 7an (zk. 83) argitaratu zela.

Zarautzen, 2002ko maiatzaren 8an
Idazkaria